

**2/2018 GOMENDIOA, EKAINAREN 21EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-  
BATZORDEARENA.****HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZUKO EDO KUDEAKETA EKONOMIKOKO  
ZUZENDARITZAK, ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK, EAE-KO SEKTORE  
PUBLIKOKO GAINERAKO ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA-ORGANOAK,  
KONTRATAZIOA SUSTATZEN DUTEN UNITATE EDO ZERBITZUAK****XEDEA: KONTRATAZIO PUBLIKORAKO INGURUMEN-KLAUSULAK**

Gobernu Kontseiluak 2008ko apirilaren 29an hartutako erabakiaren ondorioz (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen- irizpideak zein bestelako politika publikoak sartzeari buruzko Erabakia), lehenbizikoz sartu ziren ingurumen-klausulak sektore publikoaren kontratazio publikoko pleguetan. Bestalde, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko programak (2016ko irailean onartua) akordio hori denbora-muga jakin bat duen egoera pragmatikoago batera eramateko beharra nabarmendu nahi zuen.

Gaur egun, 9/2017 Legea indarrean jarri (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) eta eskatzen dituen preskripzio teknikoak eta administrazio-klausula partikularren pleguak moldatu direnez, komeni da zenbait jarraibide egitea bai ingurumen-klausulak kontratazio publikoaren prozeduraren une desberdinetan txertatzeko bai aipatutako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko programak urte honetarako eta datozen urteetarako ezartzen dituen lehentasunetara egokitzeko.

Hori dela eta, Gomendio hau kontratazio-arlo desberdinetan lan egiten dutenei zuzenduta dago, bai eta kontratazio-organoei ere; eta, bereziki, kontratuak sustatzen dituztenei, beharrak antzeman eta ezagutu eta kontratazio bakoitzean ingurumen-eskakizun egokienak zeintzuk diren inork baino hobeto dakitenei, hain zuzen. Eta

pertsona horiek izan beharko dira beraien kabuz –batzuetan, gainera, kontratuaren arduradun gisa– edo, obretan, zuzendaritza fakultatiboarekin batera, pleguetan sartuta dauden eskakizunak betetzen diren kontrolatzen dutenak.

Hala, SPKLren hitzaurreak adierazten duenaren arabera, hauxe da Legean ezartzen den kontratazio publikoko sistemaren helburua: Europako politikak eta politika nazionalak –tartean, ingurumenarekin loturikoak– inplementatzeko tresna gisa erabiltzea kontratazio publikoa. Hori horrela, honako hau adierazten du SPKLren 1. artikulua 3. apartatuak: *«**Kontratazio publiko guztietan, zeharka eta nahitaez sartuko dira irizpide sozialak eta ingurumenarekin loturikoak, baldin eta kontratuaren xedearekin loturarik badute, eta ahaztu gabe irizpide horiek sartuz gero, kontratu-prestazioaren kalitate-prezio erlazioa hobetuko dela, bai eta funts publikoak efizientzia hobe eta handiagoz erabiliko direla ere**».*

Eta **KONTRATUAREN XEDEARI** dagokionez, honako hau adierazten du 99. artikulua: *«**bete nahi diren behar edo funtzionalitate zehatzak kontuan hartuta xedatu ahal izango da, kontratuaren xedea irtenbide bakarrera mugatu gabe. Era horretara xedatuko dira, bereziki, kontratatzen diren zerbitzuen, obren edo ondasunen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzeko **berrikuntza** teknologikoak, sozialak edo **ingurumenarekin loturikoak sartzeko aukera dagoen kontratu**etan**».*

Hala, kontratuaren xedean bertan erreferentzia egiten zaie ingurumen-ezaugarriak txerta daitezkeen kontratuetan ase behar diren beharrei, eta hori egiteko zenbait aukera dago. Era horretan, ase behar diren beharrak proposatu eta zehazten diren unean bertan agertu behar da ingurumenaren inguruko gaia. Eta kontratuan ingurumen-irizpideak txertatzeari dagokionez, eskatzen den xedearekiko lotura zentzu zabalean ulertu behar da, honako hau adierazten baitu 145.6 artikulua, kontratuaren adjudikazio-irizpideei dagokienez: *«**Adjudikazio-irizpide bat kontratuaren xedeari lotuta dagoela esango da kontratu horren arabera egin beharreko prestazioak baditu edo horiei erreferentzia egiten bazaie, edozein alderditan eta bere bizi-zikloaren edozein etapatan, honako prozesu hauetan eragiten duten faktoreak barne:***

a) obra, hornidura edo zerbitzuen ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu espezifikoan, erreferentzia berezia eginik ingurumenaren eta gizartearen aldetik jasangarriak eta bidezkoak diren ekoizpen-, prestazio- edo merkaturatze-moduei;

*b) edo bizi-zikloko beste etapa baten prozesu espezifikoan, are faktore horiek izate materialaren parte ez direnean ere».*

Hortaz, gomendatzen da xedearekiko lotura horri interpretazio irekia ematea: ondasun, obra edo zerbitzu bat garatzearen inguruko edozein alderdi –esaterako, diseinua, ekoizpena, deuseztatzea edo berrerabiltzea eta merkaturatzea, garraioa eta eskuragarri jartzea– kontratuaren xedeari lotuta dagoela ulertu behar da, alde batera utzita prestazioaren izate materialaren parte den edo ez.

Bestalde, kontratu baten proposamen adjudikaziodunari eska dakioken **KAUDIMENARI** dagokionez, SPKLa ingurumenari dagokiona aipatzen du (**«enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriak adieraziko dira»**), bai obretan (88.1.d) artikulua) bai zerbitzuetan (90.1.f) artikulua), edo gainerako zerbitzuetan (91. artikulua). Horniduren inguruan ez da zehaztasun jakin hori ematen, nahiz eta gomendatzen den 89.1.c) artikuluan instalazio teknikoei, kalitatea bermatzeko hartutako neurriei eta enpresako azterketa- eta ikerketa-bitartekoei egiten zaizkien erreferentziak eta 89.1.g) artikuluan kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen jarraipen- eta hornikuntza-kateko kudeaketa-sistemei egiten zaizkien erreferentziak zentzu zabalean eta hornitu beharreko ondasunaren bizi-zikloa kontuan harturik ulertzea. Horrela, kaudimena eskatu ahalko da zentzu horretan, lehen aipatutako 1.3 eta 99. artikuluetako aginduekin lot badaitezke. Hala ere, kontuz ibili behar da lizitatzaillea ez den eta soilik merkaturatzen duen norbaitek fabrikatzen dituen ondasunekin, lizitatzailleak, esaterako, ez baitu zertan ingurumen-kalitateko ziurtagiria izan; dena dela, produktuak eskakizun handiagoak betetzen ditu. Gomendatzen da, horren ondorioz, lehia ez mugatzea.

Ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 94. artikuluko testuak jarrera hori indartzen du, ez baititu desberdintzen erkidegoko atalaseak gainditzen dituzten kontratu motak: *«1. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, kontratazio-organoek, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatze aldera, lizitatzailleak ingurumen-kudeaketako arau jakin batzuk betetzen dituela frogatzeko erakunde independenteek emandako ziurtagiriak eskatzen badituzte, erreferentzia egingo diete Europar Batasuneko ingurumen-kudeaketako eta -ikuskaritzako sistemari (EMAS) edo 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 Erregelamenduaren (EE) 45.*

*artikuluarekin bat datozen ingurumen-kudeaketako beste sistema batzuei edo ingurumen-kudeaketako beste arau batzuei, egiaztatutako erakundeei dagozkien Europar Batasuneko edo nazioarteko arauetan oinarritzen direnak.*

*2. Kontratazio-organoek onartu egingo dituzte Europar Batasuneko edozein estatutako organismok emandako ziurtagiri baliokideak, eta ingurumena kudeatzeko beste neurri baliokide batzuk ezarri dituztela frogatzeko lizitatzailleek aurkeztutako frogak ere onartuko dituzte; eta, bereziki, erabilitako ingurumen-kudeaketako neurrien deskribapena, baldin eta lizitatzailleak egiaztatzen badu neurri horiek eskatzen direnen parekoak direla, ingurumen-kudeaketako arau edo sistemarekin bat etorriz».*

SPKLak kontratuko **PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUARI** erreferentzia egiten dionean, honako hau ezartzen du bere 124. artikuluan: «*Prestazioa arautuko duten eta haren kalitateak, **baldintza** sozialak eta **ingurumenarekin** loturikoak definituko dituzten preskripzio tekniko zehatzak jasotzen dituzten pleguak eta dokumentuak gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera onartu behar dira, eta betiere kontratuaren lizitazioa egin aurretik; eta, lizitaziorik ezean, esleipena egin aurretik, betiere lege honek kontratu bakoitzerako ezarritako baldintzekin bat etorriz. Kontratazio-organoari dagokio dokumentuok eta pleguok onestea, eta soilik akats material, izatezko akats edo akats aritmetiko batengatik aldatu ahalko dira. Beste kasu batean, plegua aldatzeak jarduketan atzeragina ekarriko du».*

SPKLaren 125. artikulua adierazten du, Legearen ondorioetarako, obra-kontratuak badira, preskripzio edo zehaztapen teknikotzat joko dela «*nagusiki kontratazio-pleguetan jasotzen diren preskripzio teknikoen multzoa, material, produktu edo hornidura batek izan behar dituen ezaugarriak zehazten dituztenak, eta bereiz ditzaketenak, botere adjudikatzaileak zuzentzen dituzten erabilerari erantzun diezaioten; era berean, kalitatea bermatzeko prozedurak dira, **sortzen edo erabiltzen ari diren bitartean garatzen diren material, produktu edo jarduera horien inpaktu soziala, lanekoa, ingurumen-inpaktua eta inpaktu klimatikoa...***».

Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnez, aipatutako 125. artikulua araberak, zehaztapen teknikoa izango da «*produktu edo zerbitzu batek izan behar dituen ezaugarriak –esaterako, **kalitate-mailak, klima eta ingurumenarekiko jokabide-mailak**– zehazten diren dokumentuan agertzen dena...*».

SPKLren 126. artikuluan, preskripzio teknikoak ezartzeko arauak jasotzen dira, eta honako hau adierazten da 2. apartatuan: «148. artikuluko definizioaren arabera, *preskripzio teknikoak izan daitezke bai eskatzen diren obren, horniduren edo zerbitzuen ekoizpen edo prestazioko prozesu edo metodo espezifikoak bai bere bizi-zikloko beste fase bateko prozesu espezifiko bat, are faktore horiek ez direnean obren, horniduren edo zerbitzuen izate materialaren parte ere, baldin eta kontratuaren xedeari lotuta badaude eta kontratuaren helburuekiko eta balioarekiko proportzioa gordetzen badute*». Dena den, testuan gomendatzen da arreta izatea bizi-zikloko hasierako faseekin –diseinua, osagaiak, lehengaiak...–, lizitatzailentzat, batzuetan, zaila delako informazio hori beraien hornitzaile, fabrikatzaile eta abarregandik lortzea.

Horrez gain, zera adierazten da 126. artikuluen 4. apartatuan: «**kontratuaren xedek ingurumenari kalte egiten badio edo kalte egin badiezaioke, preskripzio teknikoak jasangarritasun-irizpideak eta ingurumena babesteari buruzko irizpideak aplikatuta definituko dira**», bat etorritik abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko testu bateratuaren 3. eta 4. artikuluetan araututako definizio eta printzipioekin (arau hori hartu behar da kontuan, eta ez SPKLak adierazten duena, indargabetuta baitago).

SPKLren 126. artikuluen 5. apartatuak zera adierazten du: *126. preskripzio teknikoak, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak diren heinean, eta bete beharrekoak diren estatuko jarraibide edo erregelamendu teknikoek kalterik egin gabe, ondorengo modu hauetako batean azalduko dira:*

- a) *Errendimenduaren edo baldintza funtzionalen arabera, **ingurumen-ezaugarriak barne**, baldin eta parametroak behar bezain zehatzak badira eta, horiei esker, lizitatzailerek kontratuaren xedea zehaztu eta kontratazio-organoak kontratua adjudika badezakete...*»

Honela dago definituta, 148. artikuluan, **BIZI-ZIKLOA**, SPKLren 126. artikuluen 2. apartatuan aipatzen dena: «1. Lege honen ondorioetarako, produktu, obra edo zerbitzu baten «bizi-zikloan» sartuko dira bizitza osoan zehar dauden elkarren segidako edo elkarrekin lotutako fase guztiak, eta edozein kasutan: gauzatu beharreko ikerketa eta garapena, fabrikazioa edo ekoizpena, merkaturatzea eta merkaturatzeko baldintzak,

garraioa, erabilera eta mantentze-lana, beharrezko lehengaiak erostea eta baliabideak sortzea; eta hori guztia erabilera deuseztatu, desegin edo amaitzen den arte.

2. Bizi-zikloaren kostuaren kalkuluan, kasuaren arabera, produktu, zerbitzu edo obra baten bizi-zikloan zehar eragiten dituen kostu guztiak edo batzuk sartzen dira:

a) Kontratazio-organoak edo beste erabiltzaile batzuek ordaindutako kostuak:

1. Erosketari loturiko kostuak.

2. **Erabilera-kostuak; esaterako, energiaren eta beste baliabide batzuen kontsumoa.**

3. Mantentze-lanen kostuak.

4. **Bizitza amaierako kostuak; esaterako, jasotzeari eta birziklatzeari loturikoak.**

b) **Produktu, zerbitzu edo obra bati bere bizi-zikloan zehar lotutako ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuak, baldin eta bere balio monetarioa zehaztu eta egiazta badaiteke; kostu horietan ere sar daitezke berotegi-efektuko gasen igorpen-kostuak eta beste igorpen kutsatzaileen kostuak, bai eta klima-aldaketaren beste arintze-kostu batzuk ere.**

Europar Batasuneko arau batek bizi-zikloaren kostuak kalkulatzeko metodo komun bat derrigortzen duen kasuetan, aipatutako kostuen ebaluazioari aplikatuko zaio.

3. Kontratazio-organoek kostuak bizi-zikloaren kostuaren kalkuluan oinarritutako planteamendu baten bidez ebaluatzen dituztenean, pleguetan adieraziko dituzte lizitatzailleek eman behar dituzten datuak, bai eta, datu horiek oinarritzat hartuta, bizi-zikloaren kostuak zehazteko erabiliko duten metodoa ere.

**Ingurumeneko kanpo-efektuei egotzitako kostuen ebaluaziorako erabilitako metodoak baldintza hauek guztiak beteko ditu:**

a) objektiboki egiazta daitezkeen eta diskriminatzaileak ez diren irizpideetan oinarrituta egotea; bereziki, ez bada behin eta berriz eta etengabe aplikatzeko ezarri, ez die ez onurarik ez bidegabeki kalterik egingo enpresa jakin batzuei;

b) interesdun guztiek eskuratzeko modukoak izatea;

c) enpresek, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile edo Espainia edo Europar Batasunari lotutako nazioarteko beste akordioen baten estatu sinatzaileetakoak barne, arazoizko ahalegina egin beharko dute beharrezko informazioa emateko.

4. Kontratazio-organoek batez ere bizi-zikloaren kostua kontuan harturik kalkulatu dituzte 145. artikulua lehen eta bigarren apartatuetan aipatzen diren kostuak».

SPKLren 127. artikuluan dago definituta **ETIKETA**, eta hau adierazten du: «1. Lege honen ondorioetarako, etiketa izango da dagozkion obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek baldintza jakin batzuk betetzen dituztela egiaztatzen duen edozein dokumentu, ziurtagiri edo egiazttagiri». Eta honako hau gehitzen du 2. apartatuan: «**kontratazio-organoek obrak, hornidurak edo zerbitzuak ezaugarri espezifikoekin** –ingurumenarekin edo gizartearekin lotutakoak– **eskuratzeko asmoa badute, preskripzio teknikoetan, adjudikazio-irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan**, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituztela frogatzen duen etiketa espezifiko bat eskatu ahalko dute. **Etiketa horiek** gizartearekin edo **ingurumenarekin** lotutakoak izan daitezke, baina **nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin**, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin loturikoak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzen dituztela bermatzen dituztenak ere, betiere, ondorengo baldintza **guztiak** betetzen badira: ...». Jarraian, Legeak sei baldintza zerrendatzen ditu. Guztiak derrigorrezkoak dira, eta, kasu batzuetan, egiaztatzeko zailak. Gainera, baldintzetako batzuk betetzen ez badira, beste aukera batzuk ematen ditu; beraz, gomendatzen da 2. apartatuaren azken paragrafoko azken tartekia kontuan izatea: «ez dute etiketa eskatuko, baina, horren orde, etiketa horren edo, hala badagokio, kontratuaren xedearekin lotuta dauden eta xede horren ezaugarriak definitzeko egokiak diren etiketaren zati batzuen espezifikazio xeheen arabera definitu ahalko dituzte preskripzio teknikoak».

Bestalde, 127. artikulua etiketa espezifiko bat eskuratzeko baldintzen parekoak betetzen direla egiaztatzen duten beste etiketa edo bitarteko batzuk onartzeko aukera ere ematen du. Lizitazaileak izango du parekotasun-frogaren ardura. Zalantzarik izatekotan, parekotasuna baloratu behar duen pertsona Ihoberekin harremanetan jar daiteke, zalantza hori argitzeko. Gainera, IHOBEn webgunean, produktuak ingurumen-irizpideen arabera etiketatzeko gida kontsulta daiteke. Erraz egiazta daitezkeen alderdien kasuan, salbuespen gisa ere onartu ahalko da lizitazaileak baldintzak betetzearen inguruan emandako autoadierazpen bat.

SPKLak kontratuaren **ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAK** aipatzen dituenean, honako hau adierazten du bere 122.2. artikuluan: «**administrazio-**

***klausula partikularren pleguetan, kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak sartuko dira; kaudimen- edo adjudikazio-irizpide gisa edo egikari-irizpide berezi gisa ezartzen diren kontsiderazio sozialak, lanekoak eta ingurumenekoak***».

Aurretik aipatu dugu proposamen adjudikaziodunak egiaztatu behar dituen ingurumen-kontsiderazioak kaudimen gisa eskatzea. Kontsiderazio horiek kontratuaren **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE** gisa ezartzeari dagokionez, honako hau xedatzen du SPKLren 145. artikulua: «1. **Kontratuak esleitzeko, kalitate-prezio erlazioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira.**

***Espedientea justifikatu ondoren, soilik kostu-efikazia –prezioa edo kostua– erlazorik oneneko planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera esleitu ahalko dira kontratuak, hala nola bizi-zikloaren kostuen kalkulua, 148. artikulua arabera.***

**2. Kalitate-prezio erlazorik onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.**

***Kontratazio-organoak kalitate-prezio erlazorik onena ebaluatzeko ezartzen dituen irizpide kualitatiboek kontratuaren xedeari lotutako ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak izan ahalko dituzte, artikulua honen 6. apartatuan xedatzen den moduan***». Honako hau gehitzen du: «***ingurumenarekin loturiko ezaugarriak berotegi-efektuko gasen igorpen-maila murriztearen ingurukoak izan daitezke, bai eta energiaren efizientzia- eta energia-neurriak egitearen ingurukoak, kontratuan zehar iturri berriztagarrietako energia erabiltzearen ingurukoak eta kontratuaren ondorioz kalte egin zaien baliabide naturalak mantendu eta hobetzearen ingurukoak ere***». Halaber, honako hau aipatzen du: «***irizpide kualitatiboez gain, kostuekin lotutako irizpide bat ezarri beharko da. Irizpide hori kontratazio-organoak hautatuko du, eta errentagarritasunean oinarritutako planteamendu bat edo prezioa izan daiteke; esaterako, bizi-zikloaren kostua, 148. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik kalkulatu dena***».

SPKLren 145. artikulua 3. apartatua xedatzen du adjudikazio-irizpide bat baino gehiago aplikatu behar dela ***h) ingurumenean inpaktu nabarmena izan dezaketen kontratuetan; kontratu horiek esleitzerakoan, ingurumen-baldintza neurgarri batzuk baloratuko dira: ingurumenean inpaktu txikiagoa izatea; ura, energia eta materialak aurrezteak eta neurrian erabiltzea; bizi-zikloak ingurumenean duen***



*kostua; prozedura eta ekoizpen-metodo ekologikoak; hondakinak sortu eta kudeatzea, eta material birziklatuak edo berrerabiliak nahiz material ekologikoak erabiltzea».*

Gogorarazten da SPKLren 145.6 artikuluan, lehen transkribatu dena, kontratuaren xedea aipatzean, xede horren eta adjudikazio-irizpide baten arteko lotura kontuan hartzeko baldintzak jasotzen direla.

Kontratua **EGIKARITZEARI** dagokionez, honako hau xedatzen du SPKLren 201. artikulua: «**kontratazio-organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte kontratuak egikaritzean kontratistek ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloan aplikatu daitezkeen betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko; betebeharrak horiek Europar Batasuneko zuzenbidean, zuzenbide nazionalean edo hitzarmen kolektiboetan xedatuta daude, bai eta V. eranskinean ezarritako ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenetan eta Estatuari lotutakoetan.**

*Kontratazio-organoek lizitazio-prozeduran zehar hautagai eta lizitatuak aurreko paragrafoan aipatzen diren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko beharrezko neurriak hartzeko duten botereari kalterik egin gabe ezartzen da paragrafo horretan adierazitakoa.*

**Lehenengo paragrafoan aipatzen diren betebeharrak ez betetzearen ondorioz, bereziki, soldatak behin baino gehiagotan berandu ordaindu edo ez ordaintzea eta hitzarmen kolektiboetako soldata-baldintzak baino okerragoak aplikatzea, larria eta zigorgarria denean, 192. artikuluan aipatzen diren zigorrak jarriko dira».**

Ingurumen-izaerako kontratuaren **EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK** sartzeko aukerari dagokionez, honako hau aurreikusten da SPKLren 202. artikuluan: «1. **Kontratazio-organoek kontratua egikaritzearekin loturiko baldintza bereziak ezarri ahalko dituzte, betiere, kontratuaren xedeari lotuta badaude, 145. artikulua zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira, Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bat badatoz eta lizitazio-iragarkian eta pleguetan adierazten badira.**

*Kasu guztietan, derrigorrezkoa izango da hurrengo apartatuak zerrendatzen dituen egikaritze-baldintza berezietako bat ezartzea, gutxienez, administrazio-klausula partikularren pleguan.*

*2. Egikaritze-baldintza horiek, batez ere, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak izan ahalko dira, berrikuntzarekin, ingurumenarekin edo gizartearekin loturikoak.*

*Besteak beste, honako helburu hauek bilatzen dituzten ingurumen-kontsiderazioak ezarri ahalko dira: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea, eta, hala, martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikulua ezartzen duen helburua betetzea (ekonomia jasangarriari buruzkoa); kontratuaren ondorioz kaltetu daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; ura era jasangarriagoan kudeatzea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktuak birzikla daitezkeen eta ontzi berrerabilgarriak erabil daitezkeen bultzatzea, eta produktuak soltean entregatzea, eta ekoizpen ekologikoa bultzatzea.*

...

*3. Pleguek zigorrak ezarri ahalko dituzte, 192. artikulua 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo, 211.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada tipifikatzen kontratua suntsiarazteko arrazoitzat, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da pleguetan, erregelamenduz zehaztutakoaren arabera, 71.2.c) artikuluan ezarritako ondorioetarako.*

*4. Kontratuan esku hartzen duten azpikontratista guztiei eskatuko zaie, baita ere, kontratuaren parte diren egikaritze-baldintza berezi guztiak».*

Aurrekoari lotuta, SPKLren 71.1.b) artikulua xedatzen du **ezingo dutela Legearen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatu, 73. artikuluan ezarritako ondorioen arabera, ingurumenaren arloan arau-hauste oso astunagatik irmotasunez zigortutako pertsonen, indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorritik.**

Gainera, artikulua beraren 2.c) apartatuarekin bat etorritik, **ezingo dute Legearen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeekin kontratatu kontratuan funtsezkoak diren klausulak bete ez dituztenek, barnean direla 202. artikulua arabera kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza bereziak, ez-betetze hori, pleguetan edo**

**kontratuan, arau-hauste astuntzat jotzen denean, eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, betiere zigorrak ezarri badira edo kalte eta galerak ordaindu badira.**

Kontralistek ingurumenaren arloan aplikagarriak diren betebeharrak eta kontratua egikaritzeko ingurumenarekin lotutako baldintza bereziak betetzen dituztela kontrolatzeari dagokionez, garrantzitsua da, kontratuko prestazioak eman ondoren, kontratuaren administrazio-klausula partikularren pleguetan eskatzea kontratistak **AZALPEN- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA** bat aurkez dezan, berariaz adierazteko lanak aipatutako betebeharrak eta baldintzak beteta egin dituela. Memoria hori ontzat eman beharko du kontratuaren arduradunak, SPKLren 62. artikuluan adierazten den moduan. Zuzendaritza fakultatiboak egikaritzeko dituzten funtzio horiek obra-kontratuaren eta obren emakidetan, eta azken horiei dagokienez, 256.2 artikuluan eskatzen da egiaztapen-aktarekin batera ingurumen-inpaktuaren inguruko adierazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen adierazpena ematea, baldin eta adierazpen hori indarrean dagoen legeriaren arabera nahitaezkoa izango balitz. SPKLak ez du aurreikusten obra-kontratuaren ingurumen-inpaktua aztertzea, baina aurreikusi beharko luke, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen (ingurumen-ebaluazioari buruzkoa) I. eta II. eranskinetan jasotzen diren zenbait kasutan sartzen baita.

Gomendatzen da kontuan izatea **EUSKADIKO EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN 2020KO PROGRAMAK** –Gomendio honen lehen paragrafoan aipatu dena– lehentasuna ematen dien prestazioak:

2018ko lehentasunak:

1. Bulegoko papera
2. Ordenagailuak (eramangarriak barne)
3. Inprimatzeko ekipoa
4. Eraikinen garbiketa
5. Ibilgailuak (autoak eta furgonetak)
6. Argitalpenak
7. Elikadura (vending-a barne)
8. Lorezaintza
9. Errepideetako garbiketa

## 10. Obra zibila eta azpiegiturak

2020ko lehentasunak:

11. Eraikuntza
12. Hirigintza
13. Hondakinen bilketa
14. Hornidura elektrikoa
15. Autobus bidezko garraio publikoa
16. Mezularitza
17. Bulegoko altzariak
18. Ehunak
19. Bidaiak
20. Ekitaldiak

SPKLren 129.1. artikulua xedatzen du **kontratazio-organoak pleguan adieraz dezakeela zer erakundetara jo behar duten hautagaiek edo lizitatzailleek zergei edo ingurumena babesteari buruz dituzten betebeharren gaineko INFORMAZIOA lortzeko. Betebehar horiek obran egindako lanetan aplikatuko dira, edo kontratua egikaritzean emandako zerbitzuetan.**

Aipatutako artikulua, 2. apartatuan, gehitzen du **1. paragrafoan aipatzen den informazioa ematen denean, contratazio-organoak kontratuak esleitzeko prozeduran eskatuko diela lizitatzaillei edo hautagaiei adieraz dezaten beren eskaintzak egitean kontuan hartu dituztela ingurumena babesteari buruz indarrean dauden xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak.**

**Nolanahi ere, 149. artikuluan ezarritakoa ere aplikatuko da balio ezohiko edo itxuragabeak dituzten eskaintzak egiaztatzeari dagokionez.**

Aipatutako 149. artikulua 4. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira: «4. *Kontratazio-mahaiak edo, bestela, contratazio-organoak ezohikoak diren eskaintza bat edo gehiago identifikatuko balitu, lizitatzailari edo lizitatzaillei eskatu beharko lieke prezioak, kostuak edo eskaintza ezohikoa dela jotzeko erabili den beste edozein*

parametro hain baxuak izatearen arrazoia xehe-xehe justifika eta banaka dezaten. Horretarako, egokia izan daitezkeen informazioa eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, eta epe nahikoa izan beharko dute.

...

Hain zuzen ere, kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak lizitatzailerorietara eskatu ahalko diren kontratazioaren prezio edo kostu hain baxuak zehaztu dituzketen eskaintzaren baldintzak justifika ditzaten, eta bereziki, honako balio hauei dagokienez:

...

d) Ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloan, bai eta azpikontratazioaren arloan ere, aplikatu daitezkeen betebeharrakiko errespetua. Ezin dira justifikatu merkatuaren azpitik dauden prezioak edo 201. artikuluan ezarritakoa betetzen ez dutenak.

...

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoak eskatu beharko dira». Erakunde batzuei ere eskatu ahalko zaizkie beste txosten batzuk, hala, ingurumen-konsiderazioak egiaztatzeko.

**«Kontratazio-organoek eskaintzak baztertu beharko dituzte bereziki baxuak badira, ez dituztelako ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloan aplikatu daitezkeen betebeharrak betetzen edo azpikontratazioari buruzko araudia –nazionala nahiz nazioartekoa– urratzen dutelako, indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialen ez-betetzea barne, 201. artikuluan xedatutakoa betez».**

SPKLren 129.1. artikulua aurreikusten duenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko sektore publikoaren eremuan, honako erakunde hauetan lor dezakete hautagaiak edo lizitatzailerak ingurumena babesteari buruzko betebeharren inguruko informazioa (betebehar horiek obran egindako lanetan aplikatuko dira, edo kontratua egikaritzean emandako zerbitzuetan):

IHOBE, S.A., Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Harremanetarako pertsona:

Gorane Ibarra González

Telefono-zenbakia: 944230743

Posta elektronikoa: [gorane.ibarra@ihobe.eus](mailto:gorane.ibarra@ihobe.eus)

**Webgunea: <http://www.ihobe.eus> (pleguetan ingurumen-irizpideak txertatu baino lehen kontsultatzea gomendatzen da)**

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

Harremanetarako pertsonak:

Maite Basabe Txabarri

Telefono-zenbakia: 945018925

Posta elektronikoa: [mbasabe@euskadi.eus](mailto:mbasabe@euskadi.eus)

José Miguel Castejón Cortés

Telefono-zenbakia: 945018926

Posta elektronikoa: [jm-castejon@euskadi.eus](mailto:jm-castejon@euskadi.eus)

Webgunea: <http://www.contratacion.euskadi.eus>